

Zirkorrika egün güziz

Xiberoko basabürütik
Leize arroiletarik
Mendi bortü erraldoietara

Zirkorrika egün güziz

Etxauetarik mütür kolegiorat
joaiten gira joaiten gara
Karrikatik botzik eskübaloirat

Zirkorrika egün güziz

Agur ! Agur zaharrak eta gazteak !
Jakintsünak eta ikasleak !
Hiztegian trebenak eta tematzen direnak
Gramatikan ausartak ! erakasle bolondresak !
belagileak eta indar egileak

Zirkorrika egün güziz

Kabanaren peredikü zozotik
Pitxuren balentrietara

PITXU eüskaraz trebe **zen** ,
FRIPU eüskaraz jautzen **da** ,
HAZKU Eüskaraz maitemintüko da

zen ! Da ! Izanen ! Izango !

Nork nahi , Noiz nahi Eüskara ikas !

Zirkorrika gure gaua !

BAT HAI EK BAT ! BAT GÜK BAT !
7 probintzietarik , müdü zabalera !

BAT ZUK ! Nik BAT !

BAT HAI EK BAT !
BAT GÜK BAT !

Zirkorrika !
ez da seküla
berantegi !

Léa, Beinat, Laurentx, Anuska, Jantto,
Maddi, Bettan, Oihana, Maia eta Guillaumme
6. erbidünak



Léa, Beinat, Laurentx, Anuska, Jantto,

Maddi, Bettan, Oihana,
Guillaumme eta Maia !
6. elebidünak